

### Balorezko proposamena

Gure enpresak emango duen zerbitzua dibertsitate handikoa da, janaria emango dugu, baina ez edozein janari. Kultura eta herrialde desberdineko janaria eskainiko dugu, jendeak jaki ez oso ezagunak dastatu ahal izango ditu. Hori aprobetxatuz, Euskal Herriko kultura eta janaria ezagutarazi egingo dugu Europa eta Asia osotik, nahiz eta Euskal Herriko janaria nahiko ezaguna izan. Adibidez, Ekialde hurbileko jaki nagusiak ez dira oso ezagunak eta gure zerbitzuaren bidez jendeak ezagutu ahal izango ditu. Denbora baten ondorioz herrialde baten janaria eskaini ondoren herrialdea edo kultura aldatuko dugu eta orduan jaki desberdinak jateko aukera izango dute gure bezeroek. Gainera produktu freskoak eskainiko ditugu eta dena guk egindakoa izango da. Agian herrialde desberdin horietako jendea egon daiteke bezeroekin harremanetan jartzeko edota azalpen txikiak emateko haien kulturei buruz. Prezioari dagokionez, ez da oso altua izango, jakiak egiteko erabiliko ditugun produktuak nahiko sinpleak izango dira eta ez dute prezio oso altua izango. Horrenbestez, klase ekonomiko ez oso altua duten pertsonen zuzendu daiteke. Gure zerbitzua azkarra izango da ere, horregatik eguerdian lanetik ateratzen diren langileak, bazkaltzeko atsedena gure terrazan igaro dezakete, zerbitzua azkarra, merkea eta desberdina baita.

